



Jon Arretxe idazlea, atzo, Donostian, lan berria eskuetan hartuta. JON URBE / FOKU

Toure detektibea, San Frantziskon ostera

Jon Arretxek Toure detektibe afrikarra protagonista duen bederatzigarren eleberria plazaratu du, Ereinekin: 'Lyrica garaia'
 ● Bilboko auzoak izandako bilakaera erakutsi du haren bitartez

Itziar Ugarte Irizar

Dena hasi zen lekura itzuli da Toure sasi-detektibea. Bilboko San Frantzisko auzoan aurkeztu zien jatorri afrikarreko protagonista irakurleei Jon Arretxek, 2012an, 19 kamera nobelarekin.

Horixe zen orduan auzoa zelatzen zuten kameren kopurua, baina, hamar urte geroago, Toure «Afrika txikira» itzuli denean, ezin daitezke kontatu puntako teknologiadun kamerak zein egun eta gau auzoaren barruak zeharkatzen dituzten polizien

joan-etorriak. Itzuleran detektibeak topatutakoa topatuko du, bada, irakurleak Arretxeren saga famatuaren ale berrian, bederatzigarrenean: *Lyrica garaia*.

«Izenburua entzunda, pentsa daiteke musikarekin zerikusia duela, baina *lyrica* y-z eta c-z ida-

tzita, hitz joko bat egin nahi izan dut», hasi ditu azalpenak Arretxek (Basauri, Bizkaia, 1963). «Lyrica modan dagoen droga berri bat da, aurrean San Frantziskon jakin ahal izan dudanez. Farmazietan saltzen dute normalean, pilulatan, baina jonkiei ematen zaie, eta haiek saltzen diete gero beste batzuei. 'Ez dira garai onak lirikarako' idatzi zuen Bertol Brechtek bere poemetakoa batean, duela urte asko, eta nire nobeletako pertsonaientzat ere ez da inoiz lirikarako garaia». Izatekotan, lyricarako. «Drogatzeko garaia,

kin batera, bertan bizi direnak botatzeko ahaleginak aipatu ditu. «Bisitariantzat, itsusia den hori desagerraraztea komeni zaie; baina berdin du, ze leku berri batera joango baitira, berdin-berdin».

Sae Kaenez gain, Toureren aspaldiko lagunak ere azalduko dira bueltan eleberrian. Horiek berreskuratzeko gogoia zerabilela esan du idazleak. «Laukote bat ziren hasieran: Sake Ne, Toure, patera pisuan lekua egiten dion somaliarra eta Berebar tabernako zerbitzaria». Haien arteko harremanetan, hain justu, umorea baliatu duela gogorarazi du editoreak, eta «ezinbesteko» osagaia dela azaldu du idazleak, are gehiago bazterreko egoerez aritzean. «Nire nobeletan, gauza batzuk oso gordinak izaten dira, baina kontua ez da nobela negarrez pasatzea.

Orekatu behar da, errealitatean gertatzen den bezala. Toureren profileko pertsonak milaka daude Bilbon, eta ez doaz kaltetik negarrez. Gu berehala itozten gara ur pixka batekin; haiek itsasoa irentsi dute, eta, hala ere, alaitasunez egiten diote aurre».

Kontakizuna, oro har, San Frantziskon garatuko bada ere, Bordele ere azalduko da. Bilborekin alderatu du egileak. «Bordele ere gero eta turista gehiago erakartzen dituen hiri bat da, baina, aldi berean, ezkutuan, jende baztertu pila bat daukana; 2.000 etxebakotik gora, diotenez».

Estilo aldetik, Arretxeren lan berria «elkarrizketa biziek» ezaugarritu dutela aipatu du Razkinen «Jonen marka da», eta deskribapenez gozatzeko zein hizpide dituen problematikez hausnartzeko tartek ere utzi dituela uste du. «Eta, kontatuko ez dudan arren, esango dut amaierak oso ongi ixten duela nobela».

Tourerengan ardaztutako lehen nobela idazteko, pisu bat alokatu zuen San Frantziskon Arretxek, baina hura utzi ondoren ere bertatik jarraitu du askotan idazten. «Ondoko pisuko andreak esan zidan bera apenas egoten zela etxean, eta giltzak hartzeko nahi banuen hara idaztera joan». Gaur oraindik ere baditu giltza horiek, eta handik idatzi du nobela berriaren parte handi bat ere. «Balkoitik begira egoten naiz, auzokoengana hurbiltzen naiz...». Iruditzen zaio Euskal Herrian ez dagoela parekorik duen tokirik, eta kritikoa agertu da agintarietako bertan aplikatzen dituzten politikekin. «Partxeak baino ez dira».



'Ez dira garai onak lirikarako' idatzi zuen Bertol Brechtek; nire pertsonaientzat ere ez da inoiz lirikarako garaia»

Jon Arretxe
Idazlea

errealitate aldientzako; aurrea egitekoa, ahal den bezala».

Madrilen utzi zituen Toureren ibilerak Arretxek, *Dortokaren begirada* (2021) aurreko nobelan. Hara heldu aurretik, Parisen ibili zen *Mesfidatu* hitzez (2019) eleberrian; gogotik aberastu zen han, baina dena galdu zuen Madrilen gero, eta hutsetik ekiteko premiarekin agertuko da osteran orain Bilbon. Irakurleak oroituko du, akaso, Sake Ne maitalearen bisita jaso zuela Madrilen detektibeak, eta marka batzuk ikusi zizkiola neskari gorputzean, ubeldu batzuk. Horien gaineko kezka izango da, hain justu, Toure Bilbora itzularaziko duena eta trama berria martxan jarriko duena.

«Hortik aurrera, beti bezala, existentzia konplikatuak zaio Toureri», adierazi du Uxue Razkin Ereineko editoreak.

Auzoko ahotsak eta giltzak

Auzora itzultzean, besteak beste, prostituzioa arautzeko lege berriak eta hirian gertatzen ari den gentrifikazio prozesuak eraldatutako ingurune bat aurkituko du protagonistak. Arretxeren nobeletan ohikoak dira prostituzioan aritzen diren pertsonaiak, baina oraingoan inoiz baino hobeto dokumentatu dela esan du: «Askabide elkarteak laguntzen die kaleko prostitutei, eta haiekin ibilita entzun ditut prostituten ahotik euren kezkek. Askok paperik ere ez daukate, eta kezkatuta daude oso euren egoeraren gaineko eztabaidarekin». Gentrifikazioari lotuta, auzoan «jatetxe dotoreak» eta kanpoko bisitariantzat pentsatutako lekuak ugaritzeare-